egoera aztertu beharko dutenak. Inolaz ere ez du eraginik izango enpresa utziliarreko akziodun jabeengan, zuzendaritzarengan eta maila ertaineko arduradunengan ez eta hauen bigarren maila arteko familiartekoengan ere. Artikulu honetan jasotako enpresa esleipendunaren lan betebeharrek betearazpeneko baldintza bereziak dira, eta ez betetzeak arau hauste oso larria suposatuko luke; ondorioz kontratua etetea ere erabaki daitekeelarik.		con la normativa laboral de aplicación, así como las circunstancias laborales del personal a subrogar. En ningún caso afectará a las personas propietarias accionistas, directivas y mandos intermedios de la empresa contratista cesante ni a los familiares hasta el segundo grado inclusive de dichas personas propietarias, accionistas, directivas y mandos intermedios de la empresa cesante. Las obligaciones laborales de la empresa contratista señaladas en el presente artículo son condiciones especiales de ejecución, cuyo incumplimiento supondrá falta muy grave, pudiendo tener como consecuencia incluso la resolución del contrato.
21.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA EGIKARITZEN DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI EGITEN ZAIZKIEN KALTEAK DIRELA ETA. SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratistak izango du kontratua egikaritzeko egin beharko diren eragiketek ekarritako kalte eta galeren erantzukizuna.		**22.- RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO.** De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 196 de la LCSP, el contratista será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato.
23.- KONTRATUAREN ALDAKETAK. Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 205. artikuluan esanbidez adierazitako baldintzetakoren bat betetzen bada, lege horren 203., 206. eta 207. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, baldin eta horrekin aldatzen ez badira lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak.		**23.- MODIFICACIONES DEL CONTRATO.** La Administración podrá modificar el contrato por razones de interés público, cuando concurra alguna de las circunstancias previstas expresamente en el artículo 205 de la LCSP, de conformidad con lo preceptuado en los artículos 203, 206 y 207 de la misma Ley y siempre que con ello no se alteren las condiciones esenciales de la licitación y adjudicación.

Gorago adierazitako aldaketa horiek bete beharrekoak izango dira kontratistarentzat.		Las posibles modificaciones referidas anteriormente serán obligatorias para el contratista.
24.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA. Zentruko erabiltzaileei buruzko datuak eta informazioa 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Pertsonalen Datuak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Legearen babesean daude. Emakidaduna babes hau bermatzeko Legeak eskatzen dituen neurriak hartzera eta aplikazioak garatzera behartuta dago. Era berean, bai emakidadunak eta bai zerbitzua eskaintzeko lanak egiteko ardura duen pertsonalak sekretu profesionala gorde beharko dute kontratuak dirauen bitartean jaso duten informazio, dokumentu eta gai guztien inguruan. Hau kontratua amaitu ostean ere mantenduko da. Era berean, kontratuaren indarraldia amaitutakoan, esleipendunak Bideberri Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuei eman beharko dio kontratu honen ondorioz bere esku dauden zerbitzuaren erabiltzaileei buruzko dokumentazio guztia, euskarri materialean zein informatikoan, eta bere ekipo informatikoetan pertsona horiei buruzko datuekin egon daitezkeen fitxategi guztiak ezabatzen direla bermatu beharko du.		**24.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL.** La información y datos correspondientes a las personas usuarias del centro se encuentran amparadas por la Ley Orgánica 3/2018, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Personales y Garantía de los Derechos Digitales, quedando la adjudicataria obligada a desarrollar aplicaciones y adaptar las medidas exigidas por la Ley para garantizar dicha protección. Asimismo, tanto la entidad adjudicataria como el personal encargado de la realización de las tareas y de la prestación de los servicios, deberán guardar secreto profesional sobre todas las informaciones, documentos y asuntos a los que tengan acceso o conocimiento durante la vigencia del contrato, incluso después de finalizar el plazo de vigencia del presente contrato. Asimismo, una vez finalizado el plazo de vigencia del contrato, la adjudicataria, deberá entregar a los Servicios Sociales de la Mancimunidad Bideberri toda la documentación, tanto en soporte material como informático, referente a las personas usuarias del servicio que se encuentren en su poder como consecuencia del presente contrato, así como garantizar el borrado de todos los ficheros que puedan existir en sus equipos informáticos con datos relativos a las mismas personas.
25.- PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERMEALDIA. Kontratuaren xede den prestazioa amaitu eta hilabeteko epean, kontratuaren onarpen ekintza formala eta positiboa egingo da, zerbitzuaren behin betiko txostena emanez.		**25.- RECEPCIÓN DE LA PRESTACIÓN Y PLAZO DE GARANTÍA** En el plazo máximo de un mes desde la finalización de la prestación objeto del contrato se producirá el acto formal y positivo de recepción de la misma, que se llevará a cabo

Era berean, hiru hilabeteko epea ezarri da, harrera formala egiten den egunetik hasita, berme gisa ezarri dena, SPKLren eta Lege horren Araudi Orokorrean jasota datozen ondorioetarako. Berme epean kontratistaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats edo ikusiezinezko akats guztiak. Administrazioak inongo eragozpenik jarri gabe epea igarotzen bada, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da.		mediante la entrega del informe definitivo del servicio. Asimismo, se establece un plazo de tres meses a contar desde la fecha de recepción formal, que se fija como garantía a los efectos previstos en la LCSP y en el Reglamento General de la referida Ley. Durante este plazo el contratista será responsable por los defectos o vicios que puedan manifestarse en los trabajos o prestaciones realizadas. Transcurrido dicho plazo sin objeciones por parte de la Administración quedará extinguida la responsabilidad del contratista.
26.- KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZARRIKO ZAIZKION ZIGORRAK. A.KONTRATUA BETETZEKO EPEAK EZ BETETZEA Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzen bada kontratua egikaritzeko epean (epe osoa zein, halakorik bada, epe partzialak), administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea (eta adjudikaziodunak bermea galdu), edo honako zigor hau ezartzea: zerbitzua behar bezala ematen berandutzen den eguneko 0,60 euro kontratuaren prezioko 1.000 euroko (BEZa aparte). Berandutzeagatik ezartzen diren zigorren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera heltzen den bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, edo, bestela, kontratua egikaritzen jarrai dadin agintzeko, zigor gehiago ezarrita.		**26.- PENALIDADES AL CONTRATISTA POR INCUMPLIMIENTO.** A. INCUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO Si el contratista, por causas que le fueran imputables, hubiese incurrido en demora respecto del cumplimiento del plazo de ejecución del contrato, tanto del plazo total como, en su caso, de los plazos parciales, la Administración podrá optar indistintamente por su resolución, con pérdida de la garantía, o por la imposición de penalidades en la proporción de 0,60 euros diarios por cada 1.000 euros del precio del contrato, IVA excluído. Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5 por ciento del precio del contrato, el Órgano de Contratación estará facultado para proceder a su resolución o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.
B. PRESTAZIOEN EGIKARITZE PARTZIALA		B. INCUMPLIMIENTO DE LA EJECUCION

EZ BETETZEA Kontratistak ez badu betetzen kontratuan zehaztutako prestazioen egikaritze partziala, eta horren errua berari egozten ahal bazaio, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, edo, bestela, kontratuaren prezio osoaren % 10en baliokidea den zigorra ezartzea.		PARCIAL DE LAS PRESTACIONES Cuando el contratista, por causas que le fueren imputables, hubiere incumplido la ejecución parcial de las prestaciones definidas en el contrato, la Mancomunidad podrá optar, indistintamente, por su resolución o por la imposición de una penalidad equivalente al 10 por ciento del precio total del contrato.
C. PRESTAZIOA OKER GAUZATZEA Prestazioa oker gauzatzen bada, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.		C. CUMPLIMIENTO DEFECTUOSO En caso de incumplimiento defectuoso de la prestación, la Administración podrá imponer penalidades por cuantía cada una de ellas no superior al 10 por ciento del precio del contrato, IVA excluído; y sin que el total de dichas penalizaciones pueda superar el 50 por ciento del precio convenido.
D. INGURUMENAREN, GIZARTEAREN EDO LANAREN ARLOKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA Kontratistak ez baditu betetzen ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak, batez ere soldatak ordaintzen behin eta berriro atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza okerragoak doloz eta era larrian aplikatzen baditu, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.		D.INCUMPLIMIENTOS DE LAS OBLIGACIONES EN MATERIA MEDIOAMBIENTAL, SOCIAL O LABORAL En caso de incumplimiento de las obligaciones del contratista en materia medioambiental, social o laboral, en especial los retrasos reiterados en el pago de los salarios o la aplicación de condiciones salariales inferiores a las derivadas de los convenios colectivos que sea grave y dolosa, la Administración, en aplicación de lo previsto en el artículo 201 de la LCSP, podrá imponer penalidades por cuantía cada una de ellas no superior al 10 por ciento del precio del contrato, IVA excluído; y sin que el total de dichas penalizaciones pueda superar el 50 por ciento del precio convenido.
E. AZPIKONTRATISTEKIKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA		E. INCUMPLIMIENTO DE LAS OBLIGACIONES CON LOS SUBCONTRATISTAS

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa gorabehera, kontratistak azpikontratistekin dituen betebeharrak betetzen ez baditu, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.		Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 217 de la LCSP, en caso de incumplimiento del contratista de sus obligaciones con los subcontratistas, la Administración podrá imponer penalidades por cuantía cada una de ellas no superior al 10 por ciento del precio del contrato, IVA excluído, y sin que el total de dichas penalizaciones pueda superar el 50 por ciento del precio convenido.
<u>F. LANGILEAK SUBROGATZEKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA</u> Kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren xede den zerbitzuak ukitutako langileak subrogatzearen arloan dituen betebeharrak, SPKLren 130.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.		<u>F. INCUMPLIMIENTO DE LAS OBLIGACIONES DE SUBROGACIÓN DE TRABAJADORES</u> En caso de incumplimiento, por el contratista, de sus obligaciones en materia de subrogación de los trabajadores por el servicio objeto del contrato, la Administración, en aplicación de lo previsto en el artículo 130.4 de la LCSP, podrá podrá imponer penalidades por cuantía cada una de ellas no superior al 10 por ciento del precio del contrato, IVA excluído, y sin que el total de dichas penalizaciones pueda superar el 50 por ciento del precio convenido.
27.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK. Zerbitzu-kontratua suntsiarazteko arrazoiak SPKLren 211. eta 313. artikuluetan daude ezarrita.		**27.- CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO.** Constituyen causas de resolución del contrato de servicios las establecidas en los artículos 211 y 313 de la LCSP.
28.- KONTRATUAREN LAGAPENA. Kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga diezazkioke kontratistak, baldin eta: a) Lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak erabakigarriak izan ez badira kontratua hari adjudikatzeko.		**28.- CESIÓN DEL CONTRATO.** Los derechos y obligaciones dimanantes del contrato podrán ser cedidos por el contratista a un tercero siempre que: a) Las cualidades técnicas o personales del cedente no hayan sido razón determinante de la adjudicación del contrato.

b) Merkatuan lehiaketa benetan murrizterik ez badakar lagapenak. c) Kontratistaren ezaugarrien aldaketa nabarmenik ez badakar lagapenak, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementua diren kasuetan, eta d) SPKLren 214.2 artikuluan jasotako baldintza eta betekizunekin bat badator lagapena.		b) De la cesión no resulte una restricción efectiva de la competencia en el mercado. c) La cesión no suponga una alteración sustancial de las características del contratista si éstas constituyen un elemento esencial del contrato, y d) La cesión se realice de acuerdo con los requisitos y exigencias recogidos en el artículo 214.2 de la LCSP.
29.- AZPIKONTRATAZIOA. Kontratistak prestazioaren gauzatze partziala azpikontratatu dezake hirugarren batzuekin. Nolanahi ere, SPKLren 215. eta 216. artikuluetan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu azpikontratazio horrek.		**29.- SUBCONTRATACIÓN.** El contratista podrá subcontratar con terceros la realización parcial de la prestación. En todo caso, dicha subcontratación estará sometida al cumplimiento de los requisitos de los artículos 215 y 216 de la LCSP.
<u>30.- ARAU-HAUSTEAK.</u> **<u>Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izango dira.</u>** **Arau-hauste arinak dira:** • Kontratua betetzerako orduan besterik gabe noizean behin inperfekzioak izatea. • Zerbitzua besterik gabe etetea. • Zerbitzua ezarritako ordua baino beranduago hastea, baldin eta atzerapena ordubetetik gorakoa ez bada eta urtean behin edo birritan baino gehiago gertatzen ez bada. • Zerbitzuari atxikitako langileek, lanean dauden bitartean, lotsarik, garbiketarik edo txukuntasunik ez izatea. • Erabiltzaileekin desatsegina izatea. • Pleguetan ezarritako gainerako ekintzak eta hutsegiteak, baldin eta arau-hauste larriak edo oso larriak ez badira. • Pertsona arduraduna aurkitzea ezinezkoa bada, baldin eta urte naturalaren barruan 4 aldiz baino gehiago gertatzen ez bada.		**<u>30.- INFRACCIONES.</u>** **<u>Las infracciones se dividen en leves, graves y muy graves.</u>** **Son infracciones leves:** • La mera imperfección no reiterada en la ejecución del contrato. • La mera interrupción del servicio. • El retraso en la iniciación del horario señalado que no exceda de una hora por más de dos veces en un año. • La falta de decoro, limpieza o aseo del personal adscrito al servicio durante el desempeño del mismo. • La descortesía con las personas usuarias. • Cualesquiera otras acciones y omisiones que vulneren lo establecido en los Pliegos y no constituyan infracción grave o muy grave. • Que la persona encargada esté ilocalizable siempre que no se produzca más de 4 veces en un año natural.

Arau-hauste larriak dira: • Behin eta berriz eta sistematikoki, zerbitzua eskaintzeko ordutegian atzerapenak izatea. • Zerbitzuaren erabiltzaileekin edo Mankomunitateko langileekin sarritan istiluak izatea. • Zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren langile edo baliabide guztiak ez edukitzea. • Gainerako gasturik sorrarazi gabe, zerbitzua aldatzeko edo hobetzeko Mankomunitateak ematen dituen aginduak ez betetzea. • Oso larritzat hartu ezin diren hutsegiteak, eta aldi berean, duten izaeragatik, arau hauste arintzat hartu behar ez direnak hutsegite larritzat joko dira. • Mankomunitateak eskatzen dituen lan parteak edo txostenak garaiz edo osorik ez aurkeztea. • Antzemandako akatsen berri ez ematea, eta eskatutako informazioa ez ematea edo informazio hori egiazkoa ez dela ikustea. • Mankomunitateak berariazko baimenik eman gabe zerbitzua aldatzea. • Erabiltzaileei tratu iraingarria ematea, baldin eta tratu iraingarri horrek hutsegite oso larrien berezko ezaugarriak ez baditu. • Zerbitzuak koordinatzean eta gestionatzean akatsak egitea, baldin eta ondorio larriak gertatuko balira. • Eskatutako aseguru polizei dagozkien erreziboak ez ordaintzea. • Ezarritako neurri zuzentzaileak ezartzeko Administrazioak egindako eskaerei jaramonik ez egitea. • Larrialdi kasuetan, Mankomunitateak ezarritako premiazko neurriak ez betetzea. • Eskaintzen diren zerbitzuen ondorioz jakiten diren gaiei buruzko isiltasuna ez gordetzea, baldin eta hori erabiltzaileentzat kaltegarria bada edo norberaren		**Se considerarán faltas graves:** • El retraso en los horarios de prestación del servicio de manera reiterada y sistemática. • Los incidentes habituales con las personas usuarias del servicio o con el personal de la Mancomunidad. • No tener completa la plantilla o los medios necesarios para la prestación del servicio. • El incumplimiento de las órdenes de la Mancomunidad sobre modificaciones o mejoras que no impliquen mayores gastos. • Los incumplimientos de las obligaciones de la empresa adjudicataria que no merezcan la calificación de muy graves y que por su naturaleza no deban ser comprendidas como leves. • La no presentación puntual o incompleta de los partes de trabajo y de los informes solicitados por la Mancomunidad. • La no comunicación de las deficiencias observadas y la ausencia o falta de veracidad de la información solicitada. • La modificación del servicio sin autorización expresa de la Mancomunidad. • El trato vejatorio a las personas usuarias, salvo que revistiese las características propias de las infracciones muy graves. • Las deficiencias en la coordinación y gestión de servicios que puedan derivar en consecuencias graves. • No abonar los recibos correspondientes a las pólizas de seguros exigidas. • Desatender los requerimientos de la Administración para aplicar las medidas correctoras que se establezcan. • La falta de medidas urgentes impuestas por la Administración en caso de emergencia. • El no guardar el debido sigilo respecto de los asuntos que se conozcan en razón del servicio prestado y que perjudique a la persona usuaria o se utilice en provecho

probetxurako erabiltzen bada. • Hiru arau-hauste arin edo gehiago egitea.		propio. • La comisión de tres o más faltas leves.
Hona hemen arau hauste oso larriak: • Eskaini beharreko zerbitzuari ez ekitea edo zerbitzua geldiaraztea, baldin eta horretarako ezinbesteko arrazoirik ez badago. • Zerbitzua eskaintzerakoan argi eta garbi akatsak edo irregulartasunak egitea, ezarritako baldintzak ez betetzea eta zerbitzua eskaintzerakoan sistematikoki atzeratzea. • Esleipendun den alderdiarekin zerikusirik ez duten pertsonek, osorik edo zatika, zerbitzua eskaintzea. • Kontratistaren ardurapean eta mendean dauden langileei dagokionez, Lanaren, Segurtasunaren eta Garbitasunaren eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak ez betetzea. • Hitzez edo egitez erabiltzaileak iraintzea edo tratu iraingarria ematea. • Zerbitzuen ordenari, araubideari, eskaintzeko erari, eta oro har, zerbitzuen eskaintza arautzen duten arauei buruz Bideberri Mankomunitateak ematen dituen agindu ofizialak ez betetzea. • Kontratatutako zerbitzuetara atxikita dauden langileek, zerbitzuen erabiltzaileen partetik, edozein ordainsari edo kontraprestazio jasotzea. • Greba bada, gobernuak ezarri dituen gutxieneko zerbitzuak ez betetzea edo zerbitzu horiek behar bezala ez eskaintzea. • Plegu honetan ezarritako baldintzak edo epeak ez betetzea, horren ondorioz izan daitezkeen bestelako ekintzak baztertu gabe.		**Tendrán la consideración de muy graves:** • No dar comienzo a la prestación del servicio o paralizarlo, excepto cuando se deba a fuerza mayor. • La prestación manifiestamente defectuosa o irregular de los servicios, no cumpliendo las condiciones establecidas, y el retraso sistemático del mismo. • La prestación total o parcial del servicio por parte de personas ajenas a la parte adjudicataria. • El incumplimiento de las obligaciones laborales, de seguridad e higiene y de Seguridad Social con el personal afecto al servicio bajo cuenta y dependencia del contratista. • Las ofensas verbales o físicas o el trato vejatorio grave a la persona usuaria. • La desobediencia a las órdenes oficiales de la Mancomunidad Bideberri relativas al orden, régimen y forma de prestación de los servicios y, en general, a las normas que regulan la prestación de los mismos. • La percepción por parte del personal adscrito a los servicios contratados de cualquier clase de remuneración o contraprestación por parte de las personas usuarias. • Incumplimiento de los servicios mínimos gubernamentales fijados o su prestación deficiente en los casos de huelga. • El incumplimiento de cualquiera de las condiciones y obligaciones establecidas en este Pliego, sin perjuicio de las acciones posteriores que de ello se deriven.

• Zerbitzuaren arduradunek emandako jarraibideak ez betetzea. • Bideberri Mankomunitateak egin behar dituen ikuskapen eta zaintza lanei ezezkoa ematea edo lan horiek ez egiten lagatzea. • Mankomunitatearen baimenik izan gabe zerbitzua lagatzea edo azpi-errentan ematea. • Sexu arrazoiengatik diskriminazio egoeratan erortzea. • Bi hutsegite larri edo gehiago egitea.		• La desobediencia a las instrucciones de las responsables del servicio. • La negativa o resistencia a permitir las tareas de inspección y vigilancia por parte de la Mancomunidad Bideberri. • Ceder, subarrendar el servicio sin autorización de la Mancomunidad. • Incurrir en discriminación por razón de sexo. • La comisión de dos o más faltas graves.
Zigorrak. • Hutsegite arinak, nolanahi ere, ohartarazpen baten bidez zigortuko dira, eta 600 eurora arteko isunak ere jarri ahal izango dira. • Arau-hauste larriak 601 eurotik 2.000 eurora arteko isunekin zigortuko dira • Arau-hauste oso larriei 2.001 eurotik, gehienez ere, fidantzaren zenbatekora arteko isunak jarriko zaizkie. Horretaz gain, kontratua suntsitzeko aukera ere izango da. Nolanahi ere, kontratua deuseztatzen den kasuetan, Bideberri Mankomunitateak ez du inolako kalte-ordainik emango. Zigorrak jartzeko prozedura, berriz, ondorengoa izango da: 1.- Zerbitzua dela-eta aurkeztu diren kexa edo salaketa guztiak, gehienez ere, 10 eguneko epean aditzera emango zaizkio kontratistari, honen ustetan zuzenbidean bidezkoa dena argudiatu ahal izan dezan. 2.- Aipatutako epea igaro ostean, Mankomunitateko organo eskudunak, dagokion Sailaren zerbitzu teknikoek egindako txostenak jaso ostean, eta eman duen erantzuna aztertu ostean, kontratistak egoki irizten dion erabakia hartuko du, eta esleipendunari aditzera emango dio erabaki hori, ebazpenean adierazitako epean,		**Sanciones.** • Las faltas leves se sancionarán, en todo caso, con apercibimiento, pudiendo imponerse multas de hasta 600 € • Las faltas graves se sancionarán con multas desde 601 € hasta 2.000 € • Las faltas muy graves se sancionarán con multas de 2.001 € hasta el importe de la fianza, pudiendo llegar incluso a la resolución del contrato. En todo caso, no cabrá indemnización alguna por parte de la Mancomunidad Bideberri en los supuestos de resolución del contrato mencionados anteriormente. El procedimiento para el establecimiento de sanciones será el siguiente: 1.- Cualquier queja o denuncia presentada sobre el servicio será comunicada a la empresa contratista para que en un plazo improrrogable de 10 días pueda argumentar por escrito lo que estime procedente en derecho. 2.- Transcurrido el plazo mencionado, el órgano de la Mancomunidad competente, una vez recibidos los informes de los servicios técnicos del Departamento correspondiente y la respuesta que haya dado, en su caso, la empresa contratista, adoptará el acuerdo que estime conveniente y se lo comunicará a la parte adjudicataria para que

hartutako akordioa bete dezan. Jarritako isunaren aurka edozein motatako errekurtsoak aurkezten badira ere, ez da zigor hori betetzetik salbuetsiko. Isunari dagokion kopuru ekonomikoa hilero esleipendunari ordaindu behar zaion fakturatik kenduko da, edo hala badagokio, behin betiko bermetik.		cumpla el acuerdo adoptado en el plazo que se indique en la resolución. La presentación de todo tipo de recursos contra la multa impuesta no eximirá de su cumplimiento. El montante económico de la multa se deducirá de la factura a abonar mensualmente a la empresa adjudicataria o, en su caso, de la garantía definitiva.
31.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK. Administrazioari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua egikaritzeko dauden zalantzak argitzea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna zehaztea, kontratuaren egikaritzea etetea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea; betiere SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta haietan jasotako baldintza eta ondorioak betez.		**31.- PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN.** Corresponden a la Administración las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable al contratista a raíz de la ejecución del contrato, suspender su ejecución, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la LCSP, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
32.- JURISDIKZIO ESKUDUNA. Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu; administrazioaren bideari amaiera emango diote organoaren erabakiek, eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan. Horrek ez du kentzen, hala badagokio, kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jarri ahal izatea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60. artikulura artekoek araututakoaren arabera, edo Administrazio		**32.- JURISDICCIÓN COMPETENTE.** Las cuestiones controvertidas que puedan derivarse del presente contrato serán resueltas por el Órgano de Contratación, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y podrán ser impugnados directamente ante la jurisdicción contencioso-administrativa, sin perjuicio de que, en su caso, proceda la interposición del recurso especial en materia de contratación regulado por los artículos 44 a 60 de la LCSP, o cualquiera de los regulados en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las

Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako edozein errekurtso.		Administraciones Públicas.
I.- ERANSKINA. KONTRATUAK EGITEKO ESKAKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO ADIERAZPEN-EREDUA. GEHITU KONTRATAZIO-AGIRI EUROPAR BAKARRA: HURA BETETZEKO HONAKO ARGIBIDE HAUEI JARRAITU BEHAR ZAIE. Erantzukizunpeko adierazpenari dagokion eranskina eranskina kontratazio-agiri europar bakarraren eredu normalizatuaren bidez betetzeko, honako urrats hauei jarraitu beharko zaie: 1.- Deskargatu DEUC.xml fitxategia zure ekipora; Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman dago eskuragarri, lizitazio honen eranskinen fitxan. 2.- Ireki esteka hau: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd 3.- Aukeratu “gaztelania” hizkuntza. 4.- Hautatu “eragile ekonomikoa naiz” aukera. 5.- Hautatu “inportatu kontratazio-agiri europar bakar bat” aukera. 6.- Igo 1. urratsean deskargatutako DEUC.xml fitxategia.		**ANEXO I. MODELO DE DECLARACIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE REQUISITOS PARA CONTRATAR.** INCORPORAR EL DOCUMENTO EUROPEO ÚNICO DE CONTRATACIÓN (DEUC), PARA CUYA CUMPLIMENTACIÓN SE DEBERÁN SEGUIR LAS SIGUIENTES INSTRUCCIONES. Para poder cumplimentar el Anexo referido a la Declaración responsable mediante el modelo normalizado Documento Europeo Único de Contratación se deberán seguir los siguientes pasos: 1.- Descargar en su equipo el fichero DEUC.xml que se encuentra disponible en la Plataforma de Contratación del Sector Público – pestaña de anexos de la presente licitación. 2.- Abrir el siguiente enlace: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd 3.- Seleccionar el idioma “español”. 4.- Seleccionar la opción “soy un operador económico”. 5.- Seleccionar la opción “importar un DEUC”. 6.- Cargar el fichero DEUC.xml previamente descargado en el equipo (paso 1).

7.- Hautatu herrialdea eta sakatu “hurrengoa”. 8.- Bete kontratazio-agiri europar bakarraren kasuan kasuko atalak. 9.- Inprimatu eta sinatu dokumentua. 10.- Behar bezala bete eta sinatu ondoren, dokumentu hori lizitazioaren gainerako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da, deialdia arautzen duten agirietan xedatutakoari jarraituz, eta horretan ezarritako epean. 11.- Kontratuak zenbait sorta baditu, adierazpen bat bete beharko da lizitatzen den sorta bakoitzeko. 12.- Lizitazioan aldi baterako enpresa-elkarte batean parte hartzen denean, dokumentu bat bete beharko da enpresa-elkartea osatzen duen enpresa bakoitzeko. 13.- Baldin eta kontratua egiteko behar adinako kaudimena egiaztatzeko lizitatzaileak beste enpresaren baten kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horiekiko duen izaera juridikoa edozein dela ere, dokumentu bana bete beharko dute enpresa lizitatzaileak eta baliabideak atxikitzen dituen enpresak.		7.- Seleccionar el país y pinchar “siguiente”. 8.- Cumplimentar los apartados del DEUC correspondientes. 9.- Imprimir y firmar el documento. 10.- Este documento debidamente cumplimentado y firmado se deberá presentar junto con el resto de la documentación de la licitación, de acuerdo con lo establecido en los pliegos que rigen la convocatoria y dentro del plazo fijado en la misma. 11.- En caso de que se trate de un contrato con varios lotes, deberá cumplimentar una declaración para cada lote por el que licite. 12.- Cuando se concurra a la licitación agrupado en una UTE, se deberá cumplimentar un documento por cada una de las empresas que constituyan la UTE. 13.- En caso de que el licitador acredite la solvencia necesaria para celebrar el contrato basándose en la solvencia y medios de otras entidades, independientemente de la naturaleza jurídica que se tenga respecto de ellas, se deberá cumplimentar un documento por la empreda licitadora y otro por la emprese cuyos medios se adscriben.
II.- ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA. Izen-abizenak: _____ Helbidea: _____ Posta-kodea: _____ NAN-zenbakia: _____ Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____		**ANEXO II.- MODELO DE PROPOSICIÓN ECONÓMICA.** D/Dª:_____. Domicilio en: _____. CP :_____. DNI nº: _____. Teléfono: _____. E-mail: _____.

Gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa dudala, neure izenean, edo honako honen ordezkari: Izen-abizenak: _____ Helbidea: _____ Posta-kodea: _____ NAN-zenbakia edo IFZ-zenbakia (pertsona fisikoa edo juridikoa den): _____ Telefonoa: _____ Jakin dut Bideberri Mankomunitateak etxez-etxeko laguntza zerbitzua kontratatzeko prozedura abiarazi duela. ADIERAZTEN DUT: 1) Konrpomisoa hartzen dut hura egikaritzeko prezio honetan: _____ euro, gehi % _____ (e)ko BEZari dagozkion _____ euro. Prezio horretan sartuta daude kontzeptu guztiak: zergak, gastuak, edozein zerga esparrutako tasak eta arielak, eta kontratistaren industria-etekina, besteak beste. 2) Ezagutzen ditut preskripzio teknikoen agiria, administrazio-klausula partikularren agiria eta kontratu hau eraenduko duten gainerako dokumentu guztiak. Denak esanbidez onartu, eta ontzat hartzen ditut beren osotasunean. 3) Ordezkatzen dudan enpresak betetzen ditu irekitzeko, ezartzeko eta funtzionatzen hasteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen betekizun eta obligazio guztiak. _____an, 2021eko _____ren ___a.		En plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de: D/Dª:_____. Domicilio en: _____. CP :_____. DNI o NIF (según se trate de persona física o jurídica): _____. Teléfono: _____. Enterado del procedimiento convocado por la Mancomunidad Bideberria para la contratación del servicio de ayuda domiciliaria, DECLARO 1º) Que me comprometo a su ejecución por el precio de _____ €, más _____ €, correspondientes al ___ % de IVA, y deberán entenderse comprendidos en el precio referido todos los cocenptos, incluyendo los impuestos, gastos, tasas y arbitrios de cualquier esfera fiscal, al igual que el beneficio industrial del contratista. 2º) Que conozco el Pliego de Prescripciones Técnicas, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentación que ha de regir el presente contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad. 3º) Que la empresa a la que represento cumple todos los requisitos y obligaciones exigidos por la normatibva vigente para su apertura, instalación y funcionamiento. En _____, a __ de _____ de 2021.

III. ERANSKINA

LANGILEEN ZERRENDA

LANGILEA	KONTRATUA	ANTZINATASUNA	LANALDIA	KM
1				
2				
3				
4				
5				

□ Lanaldi osorako: mendekotasuna duten pertsonei arreta egiteko eta norbanakoen autonomia bultzatzeko zerbitzuen gaineko estatu mailako Hitzarmen kolektibo hobetuaren araberako urteko soldata gordina

.

ANEXO III

DATOS DE LAS PERSONAS ADSCRITAS AL SERVICIO

TRABAJADORA	TIPO CONTRATO	ANTIGUEDAD	% JORNADA	KM
1				
2				
3				
4				
5				

* a jornada completa: salario bruto anual según el Convenio colectivo marco estatal de servicios de atención a las personas dependientes y desarrollo de la promoción de la autonomía personal mejorado.

7
8
9

* a jornada completa: salario bruto anual según el Convenio colectivo marco estatal de servicios de atención a las personas dependientes y desarrollo de la promoción de la autonomía personal mejorado.